

FUNTSEZKO JARDUERAK

BAZKIDE ETA HORNITZAILE NAGUSIAK

Bertako langileak. Gure zerbitzua onena izateko, adituak beharko ditugu txakurrek zainketa onena izan dezaten. Hainbat langile mota beharko ditugu gure enpresan, bakoitzak bere ardurarekin. Oraingoan, gure lantokiak funtzionatzeko, albaitarien, garbitzaileen, gidarien eta entrenatzaileen zerbitzuak beharko ditugu. Horretarako, hautaketa probak egingo ditugu langile onenak hautatzeko eta gurekin lan egiteko.



Hauek dira langile mota bakoitzak beteko dituen funtzioak:

- **Albaitariak.** Hauen funtzioa animaliei (kasu honetan txakurrak) eragiten dieten gaixotasunak diagnostikatzea, iragartzea, tratatzea eta prebenitzea izango da.
- **Garbitzaileak.** Bi motatako garbitzaileak izan beharko ditugu. Alde batetik, gunea ahalik eta garbien egoteaz arduratuko direnak; eta bestetik, txakurren garbitasunaz arduratuko direnak.
- **Entrenatzaileak.** Txakur-entrenatzaileak txakurrak hezteaz eta trebatzeaz arduratuko diren langile profesionalak dira.
- **Autobus gidariak.** Hauen beharra ezinbestekoa da txakurrak zentzura eramateko eta etxera itzultzeko.

Txakurren janari-hornitzailea. Txakur bakoitzaren behararen arabera dieta bat xehetasun guztiekin sortzen dituen enpresa bat gurekin lan egitea nahiko dugu. Zure txakurraren ezaugarrietan eta nutrizionista- eta albaitari-taldearen ezagutzan oinarrituta, bazkari pertsonalizaturako errezeta bat diseinatuko duen enpresa izango da.

Txakurren produktuen hornitzailea. Txakurren beharretan oinarritutako produktuen enpresa bat beharko dugu. Jostailuak, oheak, jan eta edateko ontziak etab. produktu hornitzen dituen enpresa.

ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK?

Haiek gabe ezingo genuke gure enpresa aurrera eraman, haien zerbitzuak ezinbestekoak direlako. Langile bakoitzak, jakina, bere eginkizuna izango du, eta guztien lanaren batura gure enpresa modu egokian funtzionatzea ahalbidetuko du.